

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresaren funtsezko jarduera banaketa da eta ez produkzioa, hau da, enpresa banatzaile bat da, lehen edo bigarren eskuko produktuak saltzen dituen eta enpresen eta bezeroen artean bitartekari bezala jarduten duena. Gure enpresak APP baten eta webgune baten bitartez funtzionatuko du, orduan plataformak eta sareko jarduerak oso garrantzitsuak izango dira.



Beraz, hasteko, gure zerbitzua martxan jartzeko webgune bat eta aplikazioa sortuko ditugu. Horretaz gain, salmenta digitalizatu martxan jarri behar dugu, bezeroek euren erosketak ahalik eta modu errazenean egiteko. Azken finean, hau ere bezeroak erakartzeko modu bat da. Webgunea martxan jartzeko, beharrezkoa dugu Internetera sarbidea emango digun azpiegitura bat. Horretarako,

Euskaltel enpresarekin harremanak sortuko ditugu etra bi enpresak onuraturik irtetzen diren kontratu bat sortu.

Honez gain, banaketarako kanalak ere antolatu behar ditugu. Alde batetik, marketin plan bat aurrera eramango dugu, plubizitatea era desberdinetan eginez gure produktua bezeroei helarazteko. Beste aldetik, produktuak amankomunitatean zehar banatzeko modu arinenak aurkituko ditugu, bezeroek produktuari itxaroten egongo diren denbora ahalik eta txikiena izan dadin.

Horrez gain, Titabaten aurrera eramateko, Lea Artibai amankomunitateko denden kolaborazioa behar dugu. Hauekin gure enpresa sortzeko elkarte bat sortuko genuke, lanak eta aktiboak elkarrekin kudeatzeko. Horrez gain, materialen eskuragarritasuna bermatzeko ere balioko liguke elkarte honek.

